

Musika estilo guztiak aukeran Arteako III. Azaro Musikalean

12. orrialdea

Arratia kantuan eta jantzan

Arratia Dantzan eta Arratia Kantuz ekimenak abiatu dabaz Arratiako jantzazaleak eta kantuzaleak, hilean behin Arratiako herriren baten batu eta jantzan edo kantuan egiteko. Jantzazaleak erromeriak erre-kuperau gura dabaz; kantuzaleak, barriz, kantu birak eta kalean era informalean kantetako ohiturea. 13. orrialdea



Naia Totorika, Arratia futbol taldeko nesken kapitainari alkarrizketea

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

261

2016ko zemendiaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Felix Padinen memoria

Felix Padin bilbotarra eta CNTko buruzagi historikoa, Arratian Errepublikaren alde burukatu eban ia lehenengo eta azkenetako gudaria izan zan. Padinek berak

kontauta, bere historiaren barri jakin eban Alvaro Rabellik. 1936ko gerrako lekuko eta gudari honen kontakizuna jaso dogu erdiko orrialdeetan. 8. eta 9. orrialdeak



Aitzol Atutxa Euskadiko txapeldun hirugarrenez



Argazkia: DEIA.

O rain hiru urte Euskadiko txapela lortu eban lehenengo bizkaitarra izan zan Atutxa II.a dimoztarra. Urri bigarrenaren 23an be, eskuratu eban Euskadikoa

hirugarren urtez jarraian, bigarrenari ia lau minutu ateraz eta azkolaririk handiena dala erakutsiz. Txapeldunak amets bat dauka, azkorea kirol profesionala izatea. 11. orrialdea

ARRATIA

Indarkeria matxistea prebeniduten

Indarkeria matxistea prebeniduteko edo indarkeriari aurre egiteko tailerrak eta kanpainak ipini dabaz martxan hamabostaldi honetan. Holan, Beldur Barik, 12 eta 26 urteko gazteai zuzendutako programeak, tailer bi antolatu dauz: neskenetako autodefensa tailerra hilaren 5ean Areatzan, eta Lip Dub tailerra Lemoan, 11n eta 18an.

Noka talde feministek "Kokoteraino nago" kanpaina abiatu dau eta hilaren 11n eta 12an, kaleetatik ibiliko dira Arratiako andrai itauntzen zerk jarten ditu sutan. Jasotako informazioagaz erakusketara antolatuko da.

Jabekuntzako Eskolako ikastaroai jagokienean, hamabostaldi honetan, herrigintza feministik landuteko aukera egongo da hilaren 3tik hasita Zeanurin. 5., 6. eta 7. orrialdeak

ARRATIA

Ikastetxeak LOMCE eta Heziberri-ren kontrako agerraldiak egin dabaz

Urri bigarrenaren 26an, ELA eta Steilas sindikatuak eta EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak egindako deiari jarraituz, Arratia eta Zeberriko eskolak, LOMCE eta Heziberri-ri desadostasuna agertu eutseen, lan-ixte, konzentrazino edo pankarten bidez. Protestan, irakasle, ikasle eta gurasoak hartu eban parte. Hezkuntzan murrizketarik ez eta hezkuntza eredu propioaren aldeko aldarrikapena be egin eban. 5. orrialdea



DIMA

Herri galdeketerako atzera kontua

Zemendiaren 4an, erabakitze eskubidearen gauzatzearen gaineko berbaldia egingo dabe Juan Jose Ibarretzek, Jaume Lopezek eta Iñaki Antiguedadek Diman. Urri bigarrenaren 23an, demokrazia sasoiko 40 zinegotzi eta alkate inguru batu ziran herri galdeketerari babesa emetoko. Izan be, herri galdeketea zemendiaren 27an izango da eta herritarren partaidetzea handia izatea gura dabe Alkarregaz Gure Esku Dago alkartekoak. 7. orrialdea

BERBALAGUN

non?

IKASI NAHI DUTU

ALKARREGAZ EGIN GEINKE!

INGU BERBA GALAPAN?

BIDEGORRITIK DIMERA?

LAGUNAK EGIN GURA BADOZUZ...

EUSKERAZ ERREZTASUNA LORTU GURA BADOZUZ...

ASTEAN ORDUBETE EUSKERAZ BERBA EGITEKO AUKERA.

IKASTEN DAGOZANAK LAGUNDU GURA BADOZUZ...

ARRATIERA IKASI GURA BADOZUZ...

EGIN ZAITEZ BERBALAGUN!

euskera@igorre.net 94 631 53 84 / 94 673 62 51

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

LEHENAGOKO TABERNAK

Lehenago herrietan tabernak egoten ziran janariaren eta edariaren zerbitzua emoteko. Ardaoa eta beste edabe batzuk be saltzean ziran, baina gehien konsumiduten zan produktua zaragitik ateratako ardaoa izaten zana lez, ardandegi eta ardaotegi izenakaz be ezagututen ziran lehenagoko tabernak. Beste aldetik, Eleizeak eroaten eban gizartearen kontrol soziala eta ez eukan ospe onean tabernen mundua. Tabernea esateko, zentzu peioratiboan, tabernazulo berbea erabilten da. Kopla zaharretan be taberneak ez eukan fama onik. Tabernazale edo tabernarati esaten jakon tabernara asko joaten zan gizonari, ze andrea tabernan sartzean bazan txarto egoan ikusita. Taber-

nea, izan be, gizonezkoen lokala izaten zan edateko, kartetan olgetako, tratuak zarratuteko, janariak edo txuflak ospatuteko, erronkak edo lehiak egiteko (azkorakaz edo, probalekuan, idiakaz), ezkontzak, agurrak eta bestelako ospakizunak antolatuteko. Tabernen jaubeak partikularrak eta herriko udala izaten ziran. Gaurko egunean be, herrikoa danean, tabernako errentazinoa erremate publikoan ateraten da urte batzuetarako, zeinda Zeberion egiten dan moduan.

Lehenago, kamino edo bide nagusien ondoan egoten zan taberneari ostatu esaten jakon, bijan ebilenak lo egiteko lekua be eukiten ebalako; Zeanurin, esate baterako, plazearen inguru-

ruan "Bekostatue" eta "Goikostatue" egoten ziran, eta Barazargo mendatetik bide barria zabaldu ostean, hau da, XIX. gizalditik aurrera, bentak edo taberna-etxeak (jateko eta lo egiteko zerbitzuak eukiezanak) ipini ziran Bentas auzoan eta Barazar gainean. Gaur egun, Arteako Plazako "Herriko Benta"n fijau baino ez gara egin behar ikusteko zelan dagoan bidekurutze batean: bide bat, Bituriara doana; eta bestea, Zeberiora eta Orozkora doana. Tabernak, gainera, erreferenteak izaten ziran herrietan funtzio soziala beteten ebelako: bertan bertsoak kantetan ziran; harremanak mantenduteko, gizonak batzean ziran mezearen ostean edo, domeketan, arrastiko denporea pasetako eta kontuak kontetako, hitanoz berba egiten... Burrukak be egoten ziran, jentekak lar edaten ebanean batez be.

Taberneari, estazino batean egoten zanean, "kantina" esaten jakon; esaterako, Arratiako Tranbiaren eta, ostean, autobusen geltokiaren aurrean egoana Zeanurin. Taberna batzuk aitatuako dodaz: Lemoan, "Peto" eta "Katxaba"; Igorreko Beheko Plazan, "Txato", eta Goiko Plazan, "Parada"; Diman, "Obispo" eta "Pijon"; Zeanurin, Eugenio Emaldirena eta Sagarna; Zeberion, Ermitabarriko Tabernea eta Olatxukoa; Areatzan, "Puñelada" eta "Azul"... Herrietako auzoetako



Lemoako taberna batean kantetan 1911n. Argazkia: Lux.

batzuk be aitaturearen: Urkizun (Igorre); Indusin (Dima); Undurragan (Zeanuri)... Eta Arratiatik kanpo, arratiarren tabernen artean, bat aitatuako dot: Bilboko Alde Zaharrea, Igorreko Bikandirena. Tabernea eukiteak bizimodua aterateko aukerea emoten eutsan haren karguan egoan familiari, baita tabernan beharren ibiltzen ziran krida eta kriduai be. Badakuguz kasu batzuk, kirolean edo espektakuluetan profesionalak izandakoak, tabernak zabalduen ebezan, handik bizi ahal izateko: Loroño, Larrabetzuko txirindularia; Hilario Azkarate, Elorrioko pelotaria; Pedro Ipiña, Arantzazuko zekorkaria... Atzen berrogei urtetik hona, taberna tradizionalak baina ez dau euki etorkizunik, jentearen, hau da, konsumidoreen gustuak aldatuten joan diralako.

Angel Larrea Beobide

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bi. 31tik zemendiaren 6ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 7tik 13ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 14tik 20ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo


Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Rake Aldekoa Diez eta Alvaro Rabelli.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Iker Perez eta Ismael Martínez (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Harea



Harri koskor eta txiki-txikiaren moltsoari harea deritxagu (aréa, agoskatuta). Batuaz, hondar esaten da. Hondartzak edo plaiak, esate baterako, hareaz osatuta dagoz. Harea-lur berbea zera da: harea asko daukan lurra, erreka-bazterretan egoten dana; hortik datoz Areatza, Arratiako herriaren lekuzena, baita Bilboko parke baten izena be.

ERETXIA

Diman alkarregaz erabakitea, gure esku dago!

!! Euskal estatu burujabe bateko herritarra izan gura dozu?" Zemendiaren 27an Diman errolatutako 16 urtetik gorako biztanle guztiok galdera honeri erantzuteko aukerea izango dogu. Bai/Ez erantzun edo zuriz itxeko ebatzia norberak hartuko dau, erabakitzeko eskubidea eskubide demokratikoa dalako, baina benetan eskubide hori gauzatuko bada herritar askoren parte hartzea egon dalako izango da. EHUko irakaslea dan Mario Zubiagak dinoan legez "erabakitzeko eskubideak zentzua izan dagian erabakiak hartu behar dira".

2013ko bagilaren 8an sortu zan Gure Esku Dago herri-ekimena "Herri bat gara, erabakitzeko eskubidea dugu eta herritarren garaia da" lelopean. Ekimen desbardinak antolatu dira ordutik, 2014ko bagilaren 8ko giza katea eta 2015eko bagilaren 21ean bost uriburuetan egindako ekitaldi erraldoiak besteak beste. 2018a bitartean herriz herri erabakiaren bidea jorrazteko asmoa dauka Gure Esku Dago, erabakitzeko eskubidea aldarrikatzetik gauzatzera igaroz.

Diman 2014an ekin geuntsan bide horri edade, kolore eta era guztietako dimoztarrez osatutako argazki eta gure asmoak adierazoten ebazan manifestu bategaz. Hasikera hasikeratik erakutsi izan dabe herritarrak beren atxikimendu leiala ekimenak proposatutako ekintza guztietan, herritar xumeak zein alkarreak. Jatorkun herri galdeketeari emondako babes eta indar hori guztia saritzeko, Gure Esku Dago osatzen genduanok ikusi genduan ezinbesteko aukerea zala.

Bide horretan, erabakitzeko eskubidea bermatzeko eta herri galdeketea egin ahal izateko, 2015eko uda ostean Alkarregaz



DIMAKO ALKARREGAZ GURE ESKU DAGO

Gure Esku Dago alkarrea sortu zan, eretxi guztietako herritarren topaleku izan dana. Urte honetan lan eta gorabehera handiak bizi izan doguz, udabarrian bizi zan egoera politikoaren ondorioz hasikera baten hitzartuta egoan galdeketearen data aldatzeko ebatzia hartzearena besteak beste. Baina heldu da azkenik itxaropentsu espero genduan unea, heldu da gure unea: zemendiaren 27an dimoztarrok erabakitzeko eskubidea gauzatuko dogu alkarregaz herri galdeketea baten parte hartuz. Eta hori da, hain zuzen be, guretzako inportanteena, alkarregaz parte hartzea. Ahal daben herritar guztiak galdeketea parte hartu dagiela, emoitzea edozein izanda.

Oraingo honetan euskal estaduari buruz galdetuko da, baina hau lehenengo pausu bat baino ez da. Erabakitzeko eskubidea herritarren burujabetzaren adierazpena da eta arlo eta eremu guztietara eroan daiteke. Eta hori izan behar da gure atzen helburua, baina arlo sozialari begiratzan badeutsagu adibidez, hain egoera larria sufriduten gagozan une honetan, erabaki burujabeak hartu ahal izateko, arlo politikoan hartu behar dira lehenengo duda barik. Argi dagoana da ebatziak herritarrengandik zenbat eta gertuago hartu, hainbat eta justuagoak izango dirala.

Goazen bada Euskal Herrian be, lehenago Eskoziak eta Kataluniak egin daben moduan, herri galdeketea bidez gure etorkizuna irudikatzen. Hainbat lekutan egin dira jada herri konsultak herritarrei erabakitzeko aukerea emonez eta, egun gitxi barru Diman ospatuko dogun galdeketeagaz, Arratiako bailara be ipiniko dogu bide horretan. Baina zemendiaren 27a hasikerea baino ezin da izan, ondoren Arratiako biztanle guztiak izan beharko leukie erabakitzeko eskubidea gauzatzeko aukerea. Eta horretarako behar segiduko dogu. Guztion borondate demokratikoa izango da eta gure helburua lortzera eroango gaituana.

BATZ 50 urte
BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)
IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

LUMATUTEN



GONTZAL MENDIBIL

Argintxoak

Ez dakit aratziarrok dakizuen marketina Zeanurin asmatu zala eta ez Ameriketean. Bai, baten batek esango dau, hala koño, handiagoak be entzuteko gagoz! Ba bai, halaxe da, marketina Argintxoak izeneko zeanurizarrak asmatu eta martxan jarri eban.

Gerra ostean, ia dana egoan egiteko, gauzak ez ziran bat be erre-zak, eta kaletarrentzat baseritarrentzat baino okerragoa zan. Baserian ortuaria eukanak beti eroan eikean zeozer agora, baina kalekumeak gatxago eukan eta halan edo holan bizibidea topau behar.

Beti esan izan da, garai gogorretan eta krisi garaietan, irudimena jakituria baino baliotsuagoa dala, eta irudimena inok eukitekotan Argintxoak eukan. Ezizena horixe zan, baina bere benetako izena: Eleuterio Ozerin. Lanbide edo ofizio asko eukazan Argintxoak eta erderazko esaera hau oso da esanguratsua: *hombre de muchos oficios, pobre seguro*.

Zapataria, ule-apantzailea eta beste hainbat ofiziodun gizona

zan, baina batez be, gauza barriak asmatzeko birtudea eukan. Halan ba, gerra osteko hamarkadan ia dana egiteko egoanean. "Lijas el Sol" izeneko produktua kaleratu eban. Garai haretan, lija edo paper-latza oso baliotsua zan gauza askotarako.

Eta esan eta egin, baina, zelan emon aditzera? Danok dakigu saltzeako, aurrez dik promozinoa egin beharra dagoala. Eta garai haretan ez egoan ez telebistarik ez internetik. Irratia egoan baina kostu handikoa zan. Beraz, zeozer asmatu beharra egoan, eta asmatu eban, bai. Hamar bat gazte eta adineko alkartu ebazan eta, beitiok: hi, arotza haz, hi igeltsero, eta halan bakotxari ofizioren bat jarri eta, Bilbora, eta uri handietara bialtzen ebazan dendetan galdetu egian ea "Lijas el Sol" eukien edo! "Ikaragarri ona izan behar da, al-tzariak, lurra, atek eta abar lustrea legez ixten ei ditu".

Dendariak ez eukan horren barri-rik, baina astean zehar, han joiazan bata bestearen ostean "Lijas el Sol" eske. Zer ete dok ba? eta non lortu ete ahal joat ba hain entzutesu bihurtu dan produktu hori? Argintxoak dana eukan kalkulauta: lasterrera, saltzailea edo komertziala bialduko eban produktua eskeintzera.

Demontre! Ordua zan, jente guztiak eskatzen deusta "Lijas el Sol". Itxi egidazak, 100 bat, ze honeek guztiok eta gainetikoak be salduta jaukazat. Eta datorren asterako prest euki egidazak beste ehun. Argintxoak, geroan Ameriketako Kolonbiara joan zan, eta han ezetu neban 1984an. Herriminaz beterik egoan eta Ameriketean hil zan marketina asmatu eban gure Argintxoak.

ZERTZEAN



IRATI ASTONDOA

1

Ume umetan aizkora hartuz indartsua bezain bizkor hainbeste plaza urte askoan ebagiz ehundaka enbor entrenamendu nahiz txapelketan maila onean ta gogor momemtuz eztau zu jarraitzeko kapaz izango dan inor.

2

Aitzol izenez ta ezizenez da Atutxa Bigarrena azken urtean ixil ixilik gorantza egin dauena aizkora garbi erakutsi dau berak dekon ahalmena ta horregaitik da gaur egungo aizkolaririk onena.

3

Bizkaiko hainbat txapel jantzita egin zenuen aurrera ume zinela bihurtu zinen txapelduna izatera urterik urte teknika landuz ahal dozula sinistra hortik hiru urtez Euskal Herriko txapel handia janztera.

4

Bizkaia frontoi guztia bete zinun kamiseta zuriz zu prest oinbiko ta kanaerdi danak mozteko egarriz bizkaitar danak hor egon ginen danok emozio handiz zuri txapeldun hirugarrenez ikusteko gogoz berriz.

5

28 urte bakarrik ta zelako palmaresa ondoan beti aita ta Amando eta lagunuen babesa urte guztian hor mantentzea ez da bapebe erreza zeure merituz bihurtu dozu egia zure ametsa.

6

Kirolari lez onena baina pertsona lez da hobe beti barreka beti laguntzen ta guztiakin noblea harro gauz zugaz Aitzol milesker segidu zure bidea beti eukiko dozu ondoan aratziarron ohorea.

BEGI TXINDORRA

Zeanuriko Guraso Eskoleak konbidauta, Dabid Zelaia-Zugadi etorri zan lehengoan gurera. Gernikako Allende-Salazar ikastetxeko gurasoa da bera.

Eskolako jangelen kudeaketea genduan berbetaldiaren ardatza. Ho-geita hamar bat lagun batu ginan bertan, eta Dabiden berbak entzutean, sentimentu bi nagusitu ziran aretoan: enbidia eta gogoa.

Enbidia, hango umeak gureak baino askoz hobeto jateko aukerea daukielako: Errigoitiko jogurra, Ondarroako antxoak, Gernikako bar-razkiak, Nafarroako olio... Enbidia, Busturialdeko eta inguruetakoa lehenengo sektoreak biziraupenerako aukera duina izango daualako aurrerantzean. Eta enbidia, hango gurasoak eta eskola komunitateak beharrerako erakutsitako borondateaz eta aurrera egiteko daukien gaitasunaz.

Baina enbidiagaz batera, gogoa eta ilusinoa be nagusitu ziran gure artean. Gogoa, Arratiako umeak be osasuntsuago jateko aukerea izan dagien. Gogoa, Arratiako nekazari, abeltzain eta dendariak bultzadea emoteko. Eta gogoa, bertoko eskola komunitate eta gurasook Gernikakoak besteko borondate eta gaitasun izan daigun.

Allende-Salazar ikastetxean, 650 umek bazkaltzen dabe egunero-egunero... Gu zeri begira gagoz?

Zuriñe Yarritu Azpitarte
Zeanuriko Guraso Eskolea



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARTEA

Aurrekontuetako batzarrak egiten hasi dira

Erredakzioa

Igazko metodologia bera erabiliko dabe Artean aurrekontuak egiteko. Hiru batzar egongo dira, urri bigarrenaren 27an, zehazkiaren 3an eta zehazkiaren 10ean, eta laugarren bat, Arteazarren Biltzarra, zehazkiaren 24an.

Batzar honeetan, 2016 urteko erreposoa egingo da. Udalak zer bete dan eta zer ez dan bete azalduko dau. Igor Etxaniz Arteako alkatearen arabera, "% 90 eginda dago eta urtea amaitu baino lehenago egingo da falta dana". Ondoren, 2017. urterako diru sarreren,

ohiko gastuen eta inbersioen estimazioak azalduko dabez, eta herritarren proposamen eta erriak jasoko ditue, ahal izan ezker aurrekontuetan sartzeako. Ekarpen horreekaz, Udal Batzordeak aurrekontuen proposamena egingo dau hilaren 17an. Arteazarren Biltzarra, hau da, herri asanblada orokorra, zehazkiaren 24an izango da. Biltzarrean auzo batzarretako aktak emongo dira jakitera eta Udalak 2017rako aurrekontuen proposamena azalduko dau. Barriro udal batzordetik pasauko dira kontuak abenduaren 1ean, eta abenduaren 13an Udalbatzan bozkatuko dira.



LEMOA

Gorbeialdeko produktuen azokea Elizondon

Erredakzioa

Lemoako Udalak antolatuta, XVII. Nekazaritzako Elikagaien Azokea izango da zehazkiaren 13an Lemoako Elizondo auzunean, futbol zelaiaren ondoan. Bertan, Gorbeialdeko ekoizleak, hogeitau postutan, sasoi honetako produkturik onenak ipiniko ditue salgai

goizeko 10:00etatik 15:00ak arte. Musika Arratiako Musika Eskoleak eta Lemoako Korakal ipiniko dabe. Orduak aldera hasita, Atxetako plazan eta azokako hainbat txokotan, Arratiako Musika Eskolako trikitilariak eta Lemoako Korakal kantu-kalejireagaz animauko dabe ingurua.

Erakusketa mikologikoa

Udagoienaren ikur diran perretxikoak ikusi eta jangarriak eta pozoitsuak desbardintzen ikasteko aukerea be egongo da Atxeta plazan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako erakusketa mikologikoari esker. Perretxikoak, Arratian bildutakoak izango dira. Izan be, bezperan Ganzabalek Arratiatik urtekerea antolatu dau perretxikoak batzeako.

ZEBERIO

Buzoia ipini dau Udalak, aurrekontuetarako proposamenak jasoteko

Erredakzioa

Zeberioko Udalak 2017 urterako aurrekontu proiektua egin dagian, herritarrek egokitzen jaten dabez proposamenak aurkezteko aukerea izango dabe.

Proposamenak udaletxeko atarian ipini dan buzoian itxi edo internet bidez bidali daitezke. Internetez bialtzeko, zeberio.net webgunean sartu eta hasierako orrian topau daiteken inprimakia beteta bialdu behar da zehazkiaren 20a baino lehenago.

ARRATIA

Mobilizazioak Arratiako eskoletan Hezkuntza sistema propioa eskatzeko



Diman egindako konzentrazioa.

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 26an, ELA eta Steilas sindikatuak eta EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak egindako deiarri jarraituz, Arratia eta Zeberioko eskolak, LOMCE eta Heziberri-ri desadostasuna agertu eutseen, lan-ixte, konzentrazio edo pankarten bidez.

Diman, eskolako patioan batu ziran irakasle, ikasle eta gurasoak. "Protesta adierazoteko batu gara eta gaur egun inposatzen jakun hezkuntza ereduari aurre egiteko, neurri askogaz ez gagozalako ados. Alde batetik, emoten dau inoz baino adostasun handiagoa dagoala gure sistema propioa eregitearen alde, baina gero praktikan hartzean diran neurriak... Eusko Jaurlaritzan

behin eta barriro agertu da LOMCEren kontra, baina gero Heziberri atera dau eta LOMCEn ezartzen diran hainbat neurri aplikau ara-



Igorreko Kultur Etxe parean egindako konzentrazioa.

ARRATIA

Herrigintzea feminismotik landuteko tailerra Zeanurin

Erredakzioa

Norberaren esperientziatik abiatuta, sexu-genero sistemeak herrigintzearen eremuan zelan eragiten dauan hausnartzeko aukerea izango dabe tailer honetan parte hartzean dabenak. Zemendiko eguenetan izango da Zeanuriko udaletxean, Joxemi Zumalabe Fundazioko Pili Alvarez Molesen eskutik. Zeanuriko Mazala Andra Elkarteak antolatu dau Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen egitarauaren barruan.

Tailerrak lau saio izango ditu, zehazkiaren 3, 10, 17 eta 24an, 18:00etatik 20:00etara, hain zuzen be. Izena zehazkiaren 2ra

arte emon daiteke AUMeko bardingintza zerbitzuan edo Zeanuriko udaletxean.

Herrigintzan sexu-genero sistemearen eraginaz gainera, feminismoaren ekarpenak ardatz hartuta, parte-hartze politikoa eraldatzeko landu beharreko bideen gaineko gogoetea be egingo dabe partaideak.

Indarkeria matxisteari aurre egiten

Hilaren 9an, Maitena Monroyk eta indarkeria matxistatik bizirik urtendako andren alkatereetako ordezkariak berbaldia emongo dabe Arantzazun, Erabilera Anitzeko Aretoan, arrastiko seiretan.

zoteko neurriak hartu ditu" azaldu deutso BEGITURI Zefe Ziarrusta Ugarrana eskolako irakasleak.


Igorreko Inazio Zubizarreta eskolakoak, lehenengo orduan lan-ixtea eta Kultur Etxe parean alkarretaratzea egin eben. Guraso batzuk be parte hartu eben protestan. Institutuan be, irakasle batzuk geldialdia egin eben lehenengo orduan.

Areteko eskolako irakasleak lan-ixtea egin eben 09:30etik 10:30era eta konzentrazioa zubian, ikasle eta gurasoakaz batera.

Eskola aurreetan konzentrazioak

Arte, Lemoa eta Zeberioko eskola aurreetan, 10-15 minutuko konzentrazioak egin ebezan. Artean, murrizketen kontrako kartelak be erakutsi ebezan eta eguenetan "Murrizketak ez" kamisetak janztea ebatzi dabe.

Zeanuriko eskolako klustroak, pankartak ipintea ebatzi eban, "Euskal Hezkuntza propioa" eta "murrizketarik ez" dinoen pankartak, hain zuzen be.



Berbaldian, indarkeria matxistea bizi izan daben andrai egindako akonpainamentuari buruz egingo dau berba Monroyk eta andrai "superbibleentzen" aldarriak entzuteko aukerea egongo da.

ARRATIA

Parte-hartze politikorako sorodidada ezinbestekoa dala esan eban Sara Gutierrezek Zuhatzun

Erredakzioa

Landa eremuko Andren Nazinoarteko Eguna zala eta urri bigarrenaren 15ean Zuhatzun (Araba) Eusko Jaurlaritzak antolatutako jardunaldian, Sara Gutierrez Egileor billaroztarrak hartu eban parte bere ibilaldi sozio-politikoaren barri emenez.

Aurtengoa jardunaldiaren hamairugaren edizinoa izan da eta honen helburua, andren parte-hartze sozial eta politikoa baloreen ipintea eta modu eraginkor baten bidez hori bultzatu daikien egoerak sortzea izan da.

Horretarako sei andren testigantzak jaso ziran topaketan, tartean Sara Gutierrezenak. Gutierrezek parte-hartze sozialerako sorodidada dala gakoa esan eban, "andren arteko aliantzak".

Berbaldian personaletik hasi eta sozialerantz lerratuz, andren parte-hartzea, sarean lan egitea, andren enpoderamentua eta sorodidada sustatu beharra azpimarratu ebazan arratiarrak. Era berean, andren jardura sozio-politikoak bai maila pertsonalean bai gizarte-mailan dakarzan onura eta aberastasunak ikusita, horretara animau ebazan entzuleak.



BEDIA

San Martin jaiak Ereño auzunean

Erredakzioa

Zemendiaren 12an San Martin ospatuko dabe Bediako Ereño auzunean. Jai egitarauko ekitaldi nagusiak, San Martin mendi martxea, Bola jokoa eta babajana frontoian izango dira. Bediako gazte trikitilariak girotuko dabe ermita ingurua.

Urtero lez, martxea Martin Atutxaren oroimenez izango da. Partaideak Bediako plazatik urtengo dira 09:00etan eta ibilbide bi izango ditue aukeran. Bata 9 km.koa eta bestea 15 km.koa. Partaideak opari bana izango dabe eta zozketan

parte hartzeako zenbakia. Martxea amaitutakoan jai giroa San Martin ermitearen inguruan izango da. Han txitxi-burruntzia, trikitilariak eta Bola jokoa egongo dira. Ondoren, babajana lagun giroan.

Zemendiak 12, zapatua

09:00etan, ibilaldia Martin Atutxaren omenez. Plazatik urtenda.

10:30ean, txitxi-burruntzia trikitilariak girotuta.

12:00etan, mezea San Martin ermitan.

12:45ean, Bola jokoa eta zozketea. **14:30**ean, baba-jana frontoian.

ARRATIA

Otzara bi aukeran Errigorako Gabonetako kanpainan



Otzara zuria edo baltza hartzeako aukerea dago aurten.

Erredakzioa

Urtero lez, Arratiako hainbat herritan be Errigorako otzarak eskatzeko aukerea egongo da. "Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka" lemapean, Nafarroako ekoizleen produktuak saldu eta euskalgingintzeari lagunduten deutso Errigorak diru horren % 25agaz.

Zemendiaren 8ra arte eskatu daitezke otzarok.

Otzara baltza edo zuria

Aurten lehenengoz, produktu

desbardinez osotutako otzara biren artean aukeratu daiteke. 50 euroko prezioa dauka otzara bakoetak.

Otzara zurian, txokolatzeko gutziak, pasta ekologikoa, arroza, polborioak edo teilak, madaria almiabarrean, eskalibadea, pikillo-saltsa, zainzuri estra lodiak, orburu-bihotzak, pikillo piper osoak, ozpin ekologikoa, melokotoia almibarrean eta ardao ekologikoa dago.

Baltzean, barriz, oliba olio birjina, mahats zukuak, potxak, melokotoi marmelada, arbendolak, borraja ekologikoa, pikillo piper mamia, zainzuri estra lodiak, orburu bihotzak, pikillo piper osoak, ozpin ekologikoa, melokotoia almibarrean eta ardao ekologikoa.

Non jaso

Eskaerak errigora.eus webgunean edo banatzeko lekuetan dagozan papelezko fitxak betez egin behar dira. Arratian banatze lekuak honeek dira: Areatzan, The Quiet Corner; Artean, Herriko Benta; Igorren, Jubiladuen txokoa eta AEK; Zeanurin, Txoko Sagarna; Diman, eskolea. Arantzazun, Bedian eta Lemoan be otzarak jasoteko aukerea egongo da.

ARRATIA

Lanbideren bulego zerbitzu mobikorra Arratian

Erredakzioa

Urri bigarrenan, Lanbidek barriro ipini eban martxan puntu mobikorra, herrietan bulegoko zerbitzua emoteko. Arratiako herrietan be egongo da. Izan be, Arratiatik hiru ibilbide ditu zerbitzuak. Holan, 5. Ibilbidea Otxandio-Ubide-Zeanurik osotuten dabe; 7.a, Igorrek, Lemoak eta Bediak eta 8.a Areatzak, Arteak, Arantzazuk eta Dimak.

Zemendiko egutegia

Zemendiaren 4an eta 18an, Lanbideren puntu mobikorra Ubiden egongo da 11:15etik

13:15era eta Zeanurin 15:00etik, 17:00etara.

Hilaren 8an eta 22an, Igorren 09:00etik 12:00etara; Lemoan 12:15etik 13:45era eta 14:30etik 15:15era eta Bedian 15:30etik 18:30era.

Zemendiaren 9an eta 23an, Areatzan egongo da 09:00etik 11:00etara; Artean 11:15etik 13:15era, Arantzazun 14:00etik 16:00etara eta Diman, 16:30etik 18:30era.

Abenduan, puntu mobikorrak 5. ibilbidea hilaren 2an, 16an eta 30ean egingo dau. 7. ibilbidea, abenduaren 20an, eta 8. ibilbidea, 8an eta 21ean.

ARRATIA

Autodefensa eta Lip Dub tailerrak



Erredakzioa

Beldur Barik, indarkeria sexista prebenidutako gazteak zuzendutako programearen barruan, Berdinbidean Bizkaiak sortutako nesken Autodefensa tailerra egongo da Areatzan, zementiaren 5ean. Eta zementiaren 11n eta 18an, Lip Dub tailerra Lemoan. Tailerrotan 12 eta 26 urte bitarteko gazteak hartu daikie parte.

Autodefensa tailerra Areatzako udaletxean izango da zapatuz, hilak 5, 11:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Bertan parte hartzeako izena hilaren 4a baino lehenago emon behar da Arratiako Udalen Mankomunitatean, berdintasuna2.ariatia@bizkaia.org helbidera idatzita edo 94 631 17 17 telefonora deituta.

Lip Dub

Lip Dub tailerrean, 12 eta 26 urte bitarteko neska-mutilak hartu daikie parte. Lemoan izango da, Jubiladuen Etxeko gaineko batzar aretoan, 18:00etatik 20:00etara, hilaren 11n eta 18an. Lip Dub-a Diman grabauko da zementiaren 25ean. Tailerrean parte hartzeako izena Gazte Lekueta edo Arratiako Udalen Mankomunitatean emon behar da.



agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1. behea
48140 Igore-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegora Zuzenean: 94 631 50 39
R.P.S. 31/06

begitu
arria ubide zuria

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentilen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA GORBEIALDE
Juridiko · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tinoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

DIMA

Diman izandako eta diran zinegotziak babesa emon deustie herri galdeketeari



Diman alkate eta zinegotzi izandakoak.

Erredakzioa

Demokrazia garaiko 40 zinegotzi eta alkate inguruk agerraldia egin eben Diman urri bigarrenaren 23an, Gure Esku Dagok zinemendiaren 27rako deitu dauan herri galdeketeari babesa emoteko.

Ekitaldian Diman 1979tik hona izan diran zinegotzi eta alkate guztiak izentau ebezan eta zinegotzi eta alkateok, izena entzun ahala oholtzara hurreratu ziran. Ondoren Lore Bilbao ziengotziak, 1936 urtean Udalak egindako aldarrikapena ekarri eban gogora, orduko akta euskeratuta irakuriz.

Gero Nekane Intxaurtza alkateak Dimako zinegotzi eta alkateen adierazpena irakurri eban. "Gaur, hemen batuta, Frankoren diktaduraren ostean, Dimako herriaren zerbitzura egon garan eta gagozan alkate eta zinegotziok Euskal Herriarentzat erabakitze eskubidea aldarrikatzen dogu; horrela, geuk be, gure aurretik kolore, edade, pentsakera eta izakera desbardinatuko dimoztarrek egindako bideari jarraipena

emonaz. Egiten dogun aldarrikapena hiru errazoitzen oinarritzen dogu: euskaldunok nazino bat osatzen dogu, Euskal Herriak historian zehar izan dituan eskubideak berreskuratzea gura doguz eta Euskal Herriaren burujabetasuna gura dogu. Eta azkenik, demokrazian sinesten dogulako, aurten zinemendiaren 27an Diman egingo dan herri galdeketa bultzatzen dogula adierazten dogu".

Ibon Izaren bertsoak, abesbatza, eta aureskua trikiagaz be ez ziran falta.

Juan Jose Ibarretxe zinemendiaren 4an

Dimako Alkarregaz Gure Esku Dagok beste ekitaldi bat antolatu dau zinemendiaren 4rako. Bertan, Juan Jose Ibarretxe Lehendakari ohiak, Jaime Lopez, Pompeu Fabra Unibersidadeko Zientzia Politika irakasleak eta Iñaki Antiguedad EHU Unibersidadeko irakasle eta legebiltzarkide eta diputadu ohiak erabakitze eskubidearen gainean egingo dabe berba. Ekitaldia frontoi handian izango da arrastiko

19:00etan.

Berbaldiaren ostean, kantaldia, errezitaldia eta erromeria egongo dira, Oihana Bartra, Igor Elortza, Gotzon Barandiaran, Rafa Rueda eta Gontzal Mendibilen partaidez.

Botoa emotea dala-eta, zehaztapen batzuk

Zinemendiaren 27an, dimoztarrek itaun honeri erantzungo deustie: "Euskal Estatu burujabe bateko herritar izan gura dozu?" Erantzuteko hiru aukera dagoz: bai, ez edo zuriz itxi.

Hautetsontzia eleizarako bidean dagoan Alkarregaz GEDko lokalean egongo da. 16 urtetik gorakoak emon ahal dabe botoa eta karneta eroan behar da. Diman errolatuta dagozanak bakarrik emon ahal dabe botoa eta karnetea ez bada agertzen, errolda agiria eroan behar da.

Botoa alde zurretik emoteko aukerea be badago, zinemendiaren 17an eta 24an, GEDko lokalean.

Antolatzaileen helburua, dimoztarren % 70ek botoa emotea da.

ARRATIA

"Kokoteraino nago" kanpaina abiatu dau Noka talde feministek

Erredakzioa

Andrenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dala-eta, Noka talde feministek "Kokoteraino nago" kanpaina ipini dau abian, egunerokotasunean gertatzen diran erasoak eta mikromatxismoak begibistan ipinteko.

Kanpaina honez gureko andren eretxiak eta kezkek jaso gura ditue. Zinemendiaren 11n eta 12an, Nokako kaleetatik ibiliko dira zerk ipinten ditu sutan Arratiako andrak itauntzen. "Haimaka errazoi daukaguz andrenganako indarkeriaz nazkatuta gagozala esateko. Adibide batzuk ipintearren, kokoteraino gagoz eraso sexual bat gertatzen danean, andrearen gainean egiten dalako berba eta errua berari leporatzen jakolako eta ez erasotzaileari. Kokoteraino gagoz orokorrean oraindino jente askok ez ditualako ikusi gura piropoak, "baboseoak" eta jarkera paternalistak be eraso sexistak dirala. Kokoteraino gagoz whatsapppeko taldeetan txistek eta argazki sexistak bidaltzen diranean inok ez daualako ezer esaten. Eta zu, zerk jartzen zaitu sutan? Itaundu gura deutsegu

igorretarrai" dinoe Nokatik.

Informazio hori batzeako kaletan itauntzeaz gainera, Facebook bitartez be egin daitezke ekarpenak. Horretarako, argazki bat atera behar da "Kokoteraino nago!" leloa daukan kartel bategaz eta Nokaren Facebookean ipini, sutan ipinten zaituan hori azalduz.

Erakusketea eta tailerra

Jasotako informazioagaz, hurrengo egunetan Agirre Lehendakaria kalean erakusketea egingo dau Nokak. "Ekintza parte-hartzaile honen helburuak dira indarkeria sexistek milaka arpegi dituala ikustarazotea, norberaren arduraz pentsau arazotea eta, egunerokotasunean, sufriduten doguzan eraso sexistaz eta egon ahal diran erantzunaz jabetzea".

Hausnarketa horretan sakontzeko tailer bat egongo da zinemendiaren 23an, 19:00etan, Kiñu Gaztetxean. "Gazte zein heldu, neska zein mutil, Igorreko zein Arteakoa izan" danak hartu daikie parte, "egunerokotasunean emoten diran erasoaz eta mikromatxismoaz berba egiteko, eta erantzun personal eta kolektiboak bilatzeko".

BEDIA

Mendizurreko pasaguneko beharrak aurrera doaz

Erredakzioa

Eusko Jaurlaritza eta ETS hasi ziran orain dala urte batzuk, oinezko eta kotxeen trenbidea zeharkatzeko puntuak kentzean. Kendu beharreko puntu horreen artean lehentasuna daukietako bat Bedian dago, Mendizurreko pasoa. Eroso-Ugarten, Usasonlorantza erreka ondotik doan bidean dago, Garabi izeneko bidean. Bedia, Lemoa eta Usansoloko jente asko ibiltzen da bertatik pasean eta trenbidea zeharkatu behar izaten dabe barrera bako paso batetik.

Trenbidearen azpitik bidea egiteko obrak orain dala hile batzuk hasi ziran baina arazo tekniko-administratibo bat egon dala eta geldirik egon dirala dino Aitor Sorriketa Bediako alkateak. "Orain lanak barriro hartu dabe martxea

eta abenduaren amaierarako edo urtailerako amaituta egongo dira". Orduan, trenbidearen azpitik pasau ahal izango da arrisku barik.

Lanak irauten daben bitartean, Mendizurreko pasoa oinezkoentzat zarratuta egongo da.



Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Pelig Mendietan, s/n. 48530 LIZASOLA, Bizkaia
Tel: 090 480 8300 o 900 200 717

ZEKUTZE
JATE TXEKA
Sabino Añua, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutsajateak@hotmail.com

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

FELIX PADIN

Miliziano anarkista bat Arratiako lurretan

Felix Padin bilbotarra, Euskadiko CNT sindikatuko buruzagi historikoa zana, Gerra Zibilaren lekuko zuzena izan zuen gure lurretan. Bera dogu Arratian errepublikearen alde burukatu zuen ia lehenengo eta azkenetako gudaria. 2014an hil zuen arte, hamar urtez, ordu luzeak konpartidu genduzan alkarregaz gerrearen gomutak akordura ekarten bere Mirandako etxean.

Alvaro Rabelli

Felix Padin, 1916ean Bilboko San Frantzisko auzoan jaioa, igeltseroa ogibidez, Euzko Gudarosteko "Isaac Puentes" batailoiko sarjentua eta geroko "Durruti" batailoiko tenientea, baina, batez be, CNT-ko kidea izan zuen. Bizitza oso bat eskeini eutsan anarkosindikalismoari eta luzaroan Gerra Zibilaren gertaera askoren lekuko zuzena izan zuen. Hil aurretik Servini epaile argentinararen aurrean deklaratu eban frankismoaren krimenak dirala-eta. Gaztetatik CNT eta (JJLL) Gazte Libertarioen erakundeetako kidea, anarkismoaren idealen arragoan zaildu zuen. Errepublikasasoiaren sindikatu anarkistearen prensa eta propaganda arduraduna izan zuen Bilbon bertan. 1934an lehenengo bider atxilotu eban, eta ostean bere beste lau lagunegaz batera armak lapurtzeaz arduratzen zan "ekintza talde" bat osatu eban: "Gu ez ginan indarkeriazaleak, baina bagenkian jakin errepublikea armaz defendidu beharko genduzana, berau, burgesa izan arren, miseria gorrian bizi ziran langileentzako itxaropen bakarra zalako".

Gerrearen hasikerea

Felixen memoriak ez eban huts egiten, gerrearen hasikerako gertaerak zehetasun handiz gordetan ebazan. 1936ko garagarrilaren 18a egun ederra eta eguzkitsua zan Bilbon. Zapatua izan arren, lan eguna zan; bazan denpora gitxi berrogeta bost orduko lan astea, Ingalaterran lez, ezarrita egoala. Goizetik hasiak ziran Afrikako armadearen mobimentuen inguruko zurrumuruak zabaltzen. Zurrumuruok ozenago egin ziran Felixek egun horretako beharra amaitu ebanerako, eguerdi aldean, Pagasarriko kaminoan. Etxera joan, erropaz aldatu eta Bilboko Zabala kalean egoan CNT sindikatuaren egoitzara atoan jo eban. Bertan jentea urduri antzean ebilen, batetik bestera, eukiezan albistak nahasiak ziran-eta. Baina, arrastirako egoerearen larritasunaz ohartuta mobilizetan hasi ziran. Egun horretan bertan greba orokorrerako deialdia egin eban sindikatu eta alderdi ezkertiar guztiak eta lehenengo begiradak Bilboko Garellano erregimentuarengan hasiak ziran mesfidantzaz pausatzen. Felix eta bere lau burkide ez ziran geldirik lotu. Sindikatuan armak



Felix Padin.

batzeako agindua emon eban. Felixek-eta kamioneta zahar bat bahitu eta etxean gordeta eukizan armak eta dinamita guztia batu ebezan. Enparaukoak Bilbon

zehir urten eban armen bila, armerietan, lantegietan, meategietan, baita museoetan be ibili ziran horretan.

Biharamunean, 19an, greba orokor eguna izan zuen, baina Afrikatik etozan albistak arduratuta, Novoak, orduko Gobernadore Zibilak, Bizkaiko Defentsa Batzarra osotzea ebatzi eban. Sindikatuak armatzea ebatzi zan. Felixek-eta, ikusita jente armatuak Garellano erregimentuaren koartela inguratuta eukala, gero jakin eban Vidal teniente-koronelak errepublikearen alde egin ebala, arma gehiagoren bila urten eban. Intera horretatik aurrera jazoerak azkartu ziran. Bilboko Concepcion konbentuan tiroketea jazo zuen, ze, faxistak konbentuetan armak ostenduten ei ebezan. Felixek lehenengo miliziano abertzaleak ikusi ebazan, mojak jagoten. Atzenean, sugarrak konbentua suntsitu eban. Felixek beti ukatuko eban anarkistak izan ziralako konbentuari su emon eutsienak: "Bertan jente asko egoan, sindikatu guztietako jentea".

Felixen taldeak beste burrukaldi bat euki eban Abusun, Malaespera meategian, hango jagoleari pistolea kendu gura izan eutsienean. Ha jagole ha larriki zaurituta itxi eban eta Galdakaoko Explosivos lantegira jo eban dinamita bila. Bertan Guardia Zibilari be aurre egin behar izan eutsien. Gobernadore Zibilak emondako aginduz dinamitea lortu ahal izan eban eta, holan, Bilbora itzuli ziran. Baina ez luzerako, ze, ordurako Gasteiztik abiatuta Bilborantza ei etozan falangista eta karlisten zutabeen inguruko barriak bolo-bolo ebilzan. Urkiola, Barazar eta Altubeko ganak matxinatuen esku jausteko arriskua egoan. Holan, atzera be kamioneta zaharra hartuta, boskotea Ugao aldera abiatu zan. Bertan, miaketa egin eban Gasteizko kaminoan, baina ez eban inor topau. Ostean Igorrerantza etorri ziran, Dimatik Urkiolara jo eban eta Otxandioko udaletxearen aurrean UGT-ko eta alderdi komunistako miliziano gitxi batzuk topau ebezan, gehienak Arrasatetik etorriak. Miaketea jarraitu eban, oraingoan Barazarretik Ubiderako tartean, Arratiako lurretan. Bertan be ez eban inor topau. Historia liburuetan beti jaso izan da inguru honetako lehenengo burrukaldiak garagarrilaren 19an bertan hasi ziralako, Felixek, ordea, ez eban inoz hori uste izan. Egun horretan Gasteizerainoko bidea zabalik egoan. 19ko iluntzean, kamioneta zaharrari saka eginez, Otxandiora itzuli ziran bertan gaba egiten. Biharamunean, bertan egozan miliziano gitxiak agindu eutseen laguntza gehiagogaz itzuliko ziralako. Bilbora etorrita, garagari-



Felix Padin Aitor Azurkigaz Otxandioko Albertia mendian, Txabolapea pinudian, 2007 urtean.

Argazkia: Aitor Azurki.

Bonbardeketearen
ostean gizon askok
ikaraz alde egin eban
frontetik, bakarrik
neskak eutsi eutsien
burrukatzeko gogoari

laren 20ko iluntzerako CNT-ko berrogei lagunek, hareetako asko neska gazte libertarioak, La Union konpainiako autobus baten urten eben Elcano kaleko geltokitik. "Liberteo Lucarini" taldea zan, geroko "Isaac Puentes" batailoiairen eramuina. Errepublikarearen alde burruka egiten joiazan gazteok Otxandiora heldu ziran, dana zan orduan inprobisazioa, txarto armatuak, banderarik be ez eukien, bakarrik bandera baltz gisa neska baten titizorroa lau haizeetara.

Taldekoak, Otxandioko Vicinay etxean ostatua hartuta, goizean, 21ean, Garellano erregimentuaren militarren etorrerea ikusi eben. Azkenez, Gasteizera joateko unea zan! Militarraz batera zutabeen urten eben Legutiano aldera. Legutianon sartu ziran lasai asko, matxino faxisten errasto barik. Orduantxe jazo zan Felixen ustetan hemen errepublikeari egin jakon traizinerik handiena. Felixek ikusi eban zelan erregimentuko ofizial askok auto partikularretan alde egin eben Gasteizerantza, arerioaren aldera pasetan egozan. Ondo planifikauta egoan. Orduan, zutabeak Otxandiora itzultzeko agindua jaso eban. Ez zan Gasteizera joan, bertan gauzak artean aiko maiko egozanean, Legutiano faxisten esku itxi zan eta beharizan gorrian egoanean, miliziano abertzaleak ez ziran agertu, mojak jagoten egozalako. 21ean bertan lehen hildakoa gertatu zan milizianoen artean, Felixen koinatu bat, "Bilba" izengoitiz, Arriaga antzokiko zapata-garbitzailea, bere armaz hil ei zan, istripuz.

Garagarriaren 22an Francoren aldeko gerra-hegazkinak Otxandioko plazea bonbardatu eben, Felixek bizi izan eban benetako lehenengo gerra ekintzea. Egun horretan be falangistak eta karlistak Krutzeta, Arlaban eta Barazarrrera hurreratu ziran Legutianotik. Lehenengo tiro hotsak ziran Bizkaiko frontean. Bonbardaketearen ostean gizon askok ikaraz alde egin eben frontetik, bakarrik neskak eutsi eutsien burrukatze-ko gogoari. Felixek beti goraiatu

eban neska libertario horreen jarkerea, ez ziran izan inondik be geroko literatureak jaso ebazan modukoak, ez ziran soldaduen atzean ioiazan emagalduek, benetako burrukalariak baino, emakumeen askatasunez ondo kontzientziatuak. Holan, CNT-ko taldetxo hau Otxandio, Dima, Zeanuri eta Ubideko lurretan ibili zan hurrengo bost hilabeteetan, gero eta efektibo gitxiagogaz.

Hasikerako taldetik geratzen zana Bilbora itzuli zan zemendiaren akabuan. Arrigorriagan armak eta neguko erropea jaso ebezan eta, atzera be, frontierantza, orain "Isaac Puentes" batailoiairen izenpean, Agirre Lehendakariaren Euzko Gudarostearen barruan. Legutianoko batailearen bezpe-rea izan zan.

Abenduan jazo ziran burrukaldirik gogorrenak Albertia mendian, baina gudarien eraso ezerezean gelditu zan, eta barriro be, atzerantza. Felixen batailoia sakabanatuta gelditu zan, Motxotegi menditik Otxandioraino. Hurrengo hilabeteetan frontea ez zan oso aktiboa izan. Han hemenkako eskaramuzak eta milizianoen arteko hartu-emon eskasak bizi behar izan ebazan: "Alkohol eta disziplina arazo ikaragarriak egozan, inguruko jente euskaldun, baserriar eta fededunak hartu-emonak ez ziran hobeak, desorganizazioa eta bortxakeria zan nagusi. Gudarien irudi epikoa ez da benetakoa".

Frontea jausi zanekoa

1937ko martia aldean Felixek Bilbora itzultzeko agindua jaso eban. CNT-ko "Durruti" batailoia osotu barria zan. Felix batailoia honen tenientea izan zan, eta frontera itzulita Altungana mendian kokatu zan, Dima eta Zeanuri artean. Euren eskoialdean, Barazar aldean, "Isaac Puentes" batailoia-ri gelditzen jakozan azken efektiboak, eta Motxotegitik Elosura "Ochandiano" batailoia komunista zabaltzen zan. Maiatzaren 31n hasi zan Mola jeneralaren erasoaldia Bizkaiko frontearen kontra. Frontea atoaan desegin zan,



Saibiko kontraeraso ezaguna alde batera itxita. Ha, Felixen esanetan, "desbandada" hutsa izan zan Bilboko "Burdinazko Gerrikorantza". Bagileko lehenengo egun horreetan Felixek Barazar aldera egin eban, "Isaac Puentes" batailoiko beste hamahiru gizonakaz lotu zan erretiradea zarratzen. Aurretiaz, "Ochandiano"ko komunistak Zeanurirako bidea hartua eben. Zeanurin izua zabaldua zan komunisten desbandadea ikusita, goseak jota eta amorrotuta etozan tropa horreek danatariko triskantzak egin ei ebezan zeanurizarren artean, arpilaketak, bortxaketak... Felix Zeanuriko herrira heldu zanerako, berau hutsik egoan, atzean, batez be, andrak lotu ziran edadekoak eta gaixoak jagoten, iges egiterik ez

eukienak. Horreen gainean jauzi ziran Gasteizko kamino nagusitik etozan falangistak, karlistak, mairuak eta italiarrak. Bortxaketa gehiago andren kontra. Areatza pasata Arteraino erretiradea, ahal dan neurrian, ordenaua izan zan. Baina, bertara ailegauta Francoren gerra-hegazkinak kaminoa bonbardatu eben eta Felixeri ezinezkoa izan jakon Lemoatxako posiziora heltzea. Bagilaren 17ra arte, Artea eta Zeberio bazoetan ostondu zan, baserrietatik iges eginda joian jenteagaz bat eginda. Atzenez, karlistak Arrigorriagan atxilotu eben. Ordu- tik aurrera beste odisea bat hasi zan Felix Padinentzat Mirandako konzentrazio-zelaian eta zigor batailoietan harik eta 40ko hamarkadan libre gelditu arte.

1937ko bagilaren 17ra arte, Felix Padin Artea eta Zeberio bazoetan ostondu zan, baserrietatik iges eginda joian jenteagaz bat eginda

Orrebiako Herri Eskola

Gure

irastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



FUTBOLA

Gizonezkoen Arratia taldea bigarren

Erredakzioa

Andrazkoai osteraz ez joakiez gauzak oso ondo, hamabostaldi honetan jokaturako partidu bakarrean 6 eta 3 galdu eban San Ignacio taldearen kontra. 12. dira ligan (14 talde dagoz) 6 puntugaz. Hurrengo partidua Igorren jokaturako dabe zemendiko lehenengo asteburuan Ardoi taldearen kontra. Ardoi atzena da sailkapenean Bigarren Mailako II. Talde honetan.

Gizonezkoak bigarren

Gizonezkoen taldea bigarren postuan dago atzen bi partiduetan bardinketa bat eta garaipen bat lortu eta gero. Urri bigarrenaren 15ean jokatu eban Galea

taldearen kontra eta 2 eta 0 irabazi eban arratiarrak. Hurrengo partiduan, urri bigarrenaren 29an jokatu eban Astrabuduako-ren kontra eta bana berdindu eban. 7 jardunaldi jokatu eta gero

Arratiak ez dau oindino norgehiagokarik galdu, eta bigarren da. Hurrengo partidua Igorren jokaturako dabe zemendiko lehenengo asteburuan Larrabetzuko Uritarra taldearen kontra.



Arratiako jokalariek San Ignacioren kontrako partiduan.

ZIKLO-KROSA

Manu Quintanillak itzel hasi dau denporaldia

Erredakzioa

Ziklo-kros denporaldia urri bigarrenaren 8an hasi zan Urduñan eta sei lasterketatan hartu dabe parte arratiarrak. Arratiako talde bi dagoz, Fisik Mediolanum, Master 30 kategorian, eta Murias Arratia, Kadete eta Junior mailan. Master 40an, Igorreko Manu Quintanilla lehiatzen da. Elite mailan, Julen Zubero Lemoakoa BTT denporaldiaren ostean, atsedendalditoxa hartzean dago. Neska talderik ez dago Arratian.

Manu Quintanillak primeran hasi dau ziklo-kros denporaldia Master 40 kategorian, hiru laster-

keta irabazita. Urri bigarrenaren 15eta 16ko astegoienean, Medina de Pomar eta Villarcayoko lasterketak irabazi ebazan. Baita hurrengo be. Urri bigarrenaren 23an, Abadinon jokaturako Abadinoko

Udala Saria, Igorrekoak sprint estuan irabazi eban, lehenengo biak denpora berean sartu ziran-eta. Urri bigarrenaren 29an Laudion hirugarren egin eban eta hurrengo egunean Muskizen, laugarren.



Manu Quintanilla.

MENDI LASTERKETEAK

Lemoatx Trail mendi lasterketea eta martxea hilaren 20an izango dira



Kartela.

Erredakzioa

Ganzabal Mendi Taldeak eta Lemoako Udalak, Lemoatx ingurutik Lemoatx Trail izeneko mendi lasterketea eta mendi martxea antolatu dabez zemendiaren 19rako. Ibilbideak 16,5 km. izango ditu eta 800 m.ko desnibela. Kiroldegitik abiatuko dira biak, mendi martxea 09:00etan eta lasterketea 10:30ean. Partaideak Lemoatxera birritan leku desbardinatetik igoko dira eta 1936ko gerrako lubakiak ikusteko aukerea izango dabe.

Lehenengo urtea da mendi martxa eta lasterketa hau antolatutena. "Orain urtebete Ganzabal Mendi Taldearen barruan mendi lasterketarako taldea sortu genduan bazkide batzuen ekimenez, Ganzabalen babesa

eta laguntza hartuz" azaldu deustso BEGITURI Jon Ander Susaeta antolakuntzakoak. Taldeak herrian mendi lasterketa bat egiteko proposamena jaso eban, eta Kirol Astearren barruan antolatzea ebatzi eban.

Mendi martxa eta lasterketa honen helburuak dira, herrian kirola sustatzea, Lemoatxeko inguruak ezetuten emotea eta herrian "ekimen polit bat izatea".

Urtekerea eta helmuga Lemoako eskoletan izango dira, eta kiroldegiko aldagelak erabili ahal izango dabez kirolariak. Amaieran sari banaketea eta mendiko materialen zozketea egongo da eskolako aterpean.

Izen emotea

Mendi lasterketan parte hartzeako izena kirolprobak.com webgunean emon daiteke zemendiaren 16ra arte, 8 euro pagauta edo lasterketearen egunean bertan, 10 euroko prezioan federauta egon ezker. Federatu barik dagozanak 15 euro pagau behar dabez, izena aldeztu aurretik zein egunean bertan emonda be.

Mendi martxea egin gura dabanak, egunean bertan emon behar dabe izena, 5 euroko prezioan.

Izen emote bakoetako euro bat Hegoak Astinduz erakundeari emongo jako. Hegoak Astinduz alkarteak "tximeletaren azala" moduan ezetuten dan gaisotasunaren barri emon eta jentea sensibilizetako egiten dau behar.

Arratia
Ubide eta zeberiko
euskerea
eta kulturearen alde

Hamabostero
begitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be

Eltxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateralako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Izen-abizenak:
Helbidea:
Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

Zertu Kultur Elkarteak
Berrito Plaza 21. 20112 Artea

begitu

FUTBOLA

Naia Totorika: "Polita da Arratia moduko leku batentzat holango kategorian jokatuetea"

Naia Totorika igorrezarrak 14 urte daroaz jokalaria moduan Arratia futbol taldean eta taldeko kapitaina da. Aurten, Bigarren Mailara igon da Arratia. Pozik eta oso gogotsu dago taldeko kapitaina, baina era berean, ikaratuta. Izan be, Arratia ez da inoz egon Bigarren Mailan eta kategorian horretan egoteak esfortzu eta esijentzia maila handiagoa eskatzen dau.

Rakel Aldekoa Diez

Orain Bigarren Mailan za-gozie, zer suposatzen dau zuontzat? Honek, jokalarior esfortzu gehiago eskatuko deusue ezta.

Esfortzu handiagoa egin behar dogu bai. Diferentzia handia dago gu egon garan mailatik Bigarren Mailara. Entrenamentuak eta egun bardinetan dira, baina argi dagoana da, esijentzia maila handiagoa danez kategorian honetan, askoz hobeto entrenau behar dala eta topera jokatu. Kategorian honetako taldeak, kalidade handiko jokoak daukie eta jokatzeko erritmoan asko igarten da. Hori entrenau behar dogu.

Ze ibilbide izan dau taldeak?
Gu hasi ginan Lurraldeko atzenengo kategorietan eta beti ibiltzen ginan taularen atzenengo postuetan. Hori bai, uste dot atzenak ez garala inoz izan. Gero, egin eben liga barri bat Euskal Herri mailan Euskal Liga deitzean dana. Hori, gitxi gorabehera, orain dala bost urte izan zan. Hor, Bizkaiko txapel-dun be izan gara. Lau urtez jokatu dogu liga horretan eta pasa dan urtean bigarren geratu ginan. Lehenengoa igoten da Bigarren Mailara, baina Errioxako taldeak, igon egin behar ebanak ezetz esan eban. Gero, opatu eutsien beste hainbat talderi, baina diru kontuak edo maila kontuak dirala, ez eben



Naia Totorika.

mailaz igotea onartu. Gero guri emon euskuen igoteko aukerea eta hementxe gagoz.

Gogotsu zagozie?

Beharko. Igotea ez genduan espero, ze uda erdian enterau ginan igongo ginala eta izan zan apur bat... ez dakit poza bai baina sustoa be bai. Jakinda nora goazen eta zer datorren, pozik gagoz, Arratia ez dalako inoz egon Bigarren Mailan. Orain Espainia mailan gabiz konpetiduten. Geure buruari esan deusagu, gura badogu zeozer egin, dana emon behar dogula eta apurka-apurka joan.

Zer espero dozue aurrerantzean?
Hasteko, aurtengoan polita izango

zan maila mantenidutea, nik uste dot hori dala aurtengo helburua. Bueno, helburu moduan ondo konpetidutea daukagu, ez bada-go besterik, eta bajatuten bagara behintzat arpegia emon eta ondo konpetidu. Beste urte bete gehiago irautea itzela izango leiteke, atzetik datozenak ikusteko Bigarren Mailan jokatueteo aukerea badagoala.

Orain hasi diran neskentzako, herriko taldea kategorian horretan jokutzen ikustea, Athleticen kontra barbarako, handia da. Atzenenan, Athletic erreferentea da eta Arratia taldean jokatu ezker Athleticen kontra jokatueteo aukerea dagoala ikusteak lagunduko dau.

AZKOREA

Euskadiko hirugarren txapela irabazi dau Atutxak



Aitzol Atutxa.

Argazkiak: DEIA.

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 23an jokatu zan Euskadiko Txapela Biboko Miribilla frontoian eta Atutxa II.a dimoztarra izan zan garaile hirugarren urtez jarraian. Joseba Otaegi zizurkildarra izan zan bigarrena eta Azpeitiako Mikel Larrañaga hirugarrena.

Erakustaldia egin eban Dimakoak Bilbon. Izan be ia lau minutu atera eutsazan bigarrenari. Hau da, lau kanaerdiko, sei ontzako lau enbor eta lau oinbiko 44 minutu eta 47 segundutan ebagi ebazan. Otaegik 48 minutu eta 25 segundutan gelditu eban erlojuak.

Ezustea izan zan, Iker Vicente gazte nafarrak laugarren egitea. Izan be, Vicentek Nafarroako txapela eta Urrezko Aizkora irabazi dauz aurten, eta Aitzol Atutxari be hirutan nagusitu jako, baina finalean 49' 32" egin eban eta laugarren postuagaz konformau behar izan zan.

Sei aizkolari neurtu ziran finalean. Bosgarren eta seigarren Juan Jose Lopez Azpilikuetak eta Ugaitz Mugertzak egin eben hu-

rrengoz hurrengo.

Bizkaiko azkolaririk onena

Aitzol Atutxa aizkolaritzaren historian sartu zan orain dala hiru urte, Euskadiko txapela eskuratubanean. Izan zan, Euskadikoa lortzean eban lehenengo bizkaitarra izan zan. Hiru urtetan jarraian eskuratzean, Bizkaian inoz izan dan aizkolaririk onena dala esan daikegu. Edo "emoitza onenak lortu dauzana" txapeldunaren berbetan.


Ibilbide horregaz, amets guztiak beteta eukiko dauzala pentsau daiteke, baina Dimakoak amets bat daukala aitortu deusue BEGITU-ri "nire ametsa azkolaritzea kirol profesionala izatea da. Ez dago nire esku, sistema eta ikusleen esku baino. Peloteak izan dauan bilakaerea, azkolaritzeak be izatea da nire ametsa".

Ezin da ukatu aizkolaritzea momentu onean dagoala eta holan uste dau Atutxak. "Hedabideetan gero eta gehiago agertzen da, ikuslerik ez da falta eta kirolaren etorkizuna bermatuta dagoala esan geinke, eta azkolarien artean, gazteak hartu dabe erreleboa".

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia
Zentroa
Igorre
Ellexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari
Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

Kili-Kili Umeen denda
Umeen denda
94 673 63 51
Agirre Lehendakaria 10
Igorre
kilkiligorre@gmail.com



BERTSOLARITZEA

Arantzazuko Igor
Menikaren txandea,
zemendiaren 5ean

Igorreko saioa.

hirugarren eginez. Igor Menika hilaren 5ean egongo da Zaldibaren, finalurrekorako lehian.

Urri bigarrenaren 23an Igorren jokaturako hirugarren kanporaketan Iñaki Iturriotz egon zan. Saioa, Beñat Ugartetxeak irabazi eban, finalurrerako pase zuzena lortuz. Puntuazioaren arabera pasetako be gax dauka Igorrekoak. Izan be, Iturriotzek 385 puntu lortu ebazan, Igorren bigarren egin eban Julen Erezumak barriz, 444 puntu.

Menikaren txandea

Zemendiaren 5ean, Igor Menika saiatuko da finalurrekora zuzenean pasetan. Horretarako, Beñat Romero, Beñat Vidal, Eneko Arrate, Nerea Ibarzabal, eta Peio Ormazabal irabazi beharko deutse. Kanporaketea Zaldibargo Olazar frontoian izango da 17:30ean.

Erredakzioa

Arratiar bi dagoz parte hartzean Bizkaiko Bertsolari Txapelketako kanporaketetan, Igorreko Iñaki Iturriotz eta Arantzazuko Igor Menika. Iturriotzek hirugarren kanporaketan hartu eban parte,

JAIALDIA

"Hauxe da gure kantua" jaialdia

Erredakzioa

Lemoako Udalak eta gazteak, memoria historikoaren inguruan "Hauxe da gure kantua" jaialdia antolatu dabe zemendiaren 11rako. Jaialdia 19:30ean hasiko da Gaztetxean eta bertan, beste artista batzuen artean, Estankona anaiak, Arkaitz Estiballes, Nora Gaintza eta diskoa egiten parte hartu eben Lemoako gazteak egongo dira.

Hauxe da gure kantua Lemoako Udalak sustatuta, memo-

ria historikoaren gaineko herriko gazteak garagarrean kaleratutako diskoaren izena da. Diskoa, zortzi abestik, poesia bik eta bertso batak osotuten dabe Arratia inguruko artistak sortu eta kantutakoak. Estankona anaiak, Igor Menika, Eskean Kristö, Unai Santos, Rafa Ugalde eta Arkaitz Estiballes dira artista horreetako batzuk.

Jaialdiagaz Lemoako Udalak Egia, Justizia eta Erreparazioaren alde beharrean jarraituteko konpromisoa berretsi gura dau.



MUSIKEA

Musika estilo guztiak Artean

Erredakzioa

Santa Zezilia edo Xixili deuna zemendian ospatuten dala eta Arteako Udalak, eskoleak, tabernak, Musika Eskoleak, guraso alkarteak, Andra Mari parrokiak eta AKKTK zemendi musikala antolatu dabe, aurten hirugarrenez. Eskolan, tabernetan eta kalean ume, gazte zein helduentzako estilo guztietako kontzertuak egongo dira.

Arteako III. Azaro Musikala, hilaren 4an abiatuko da, 19:00etan, txotxongilo ikuskizun batez. Rosa Martinezek *Hala bazan* eskeiniko dau ludotekan.

Hurrengo egunean, Four Friends taldeak kontzertua joko dau Arte tabernan, iluntzeko 21:30ean. Batez be jazz, blues eta swing estiloko musika egiten dau taldeak.

Hilaren 11n ume eta gazteenzako joko korala egongo da musika eskolan arrastiko seiretan, hurrengo egunean, hilak 12, Moonshine Wagon taldearen txandea izango da Ekomuseoan 21:30ean. Gasteizko hirukoteak, Estadu Batuetako mu-

sikea egiten dau, country eta bluegrass estilokoak, gitarrea, bibolina, kontrabajua, mandolina, banjoa eta aho-soinua joaz.

Zemendiaren 18an, Arteako eskolan jardunaldi irekiak egingo dabez 15:15ean. Eguen berean, arrastiko 19:30ean, San Migel eleizan, Luis Iruarizaga Abesbatzak, Arratiako Musika Eskoleak eta Arteako umeak emonaldia eskeiniko dabe. Hurrengo egunean, Herriko Bentan, Mikel Inuntziaga "Inun" kantautorea egongo da 21:30etik aurrera.

Santa Zezilia egunean, hilak 22, 18:00etan, kalejirea egingo dabe Musika Eskolakoak: Batzokitik, plazara eta handik Ekomuseora. Ostean txokolatea egongo da.

Eta amaitzeko, hilaren 25ean kontzertu bi aukeran. Bilbo Musika Eskolako Ahots Konboak, jazz, blues eta soul kontzertua eskeiniko dau San Migel eleizan, arrastiko 20:00etan; eta Batzokian, 21:00etan, rock kontzertua egongo da Sonic Free Station taldearen eskutik.



IKASTAROA

Doluaren gaineko tailerra
Zeanuriko eskolan

Erredakzioa

Zeanuriko Guraso Eskoleak, Albakoa Guraso Elkartea eta Foru Aldundia laguntzeagaz, doluaren gaineko tailerra antolatu dau zemendiaren 12 eta 13rako. Ikastaroa, doluan aditua dan Kepa Kamiñak emongo dau Zeanuriko eskolan. Saio bi izango ditu. Lehenengoa zapatuan izango da 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, eta bigarena domekan, 09:30etik 14:00etara.

Ikastaroan parte hartzean dabenak alkarregaz bazkalduko dabe zapatuan. Izen emotea,

gurasoelkartea@zeanurikoeskola.com helbidean egin daiteke, 65 euroko prezioan, bazkaria barne. Ordainketea kontu zenbaki honetan egin behar da: ES39 2095 0335 21 1009286709.

Ikastaroa batez be gaztelaniaz izango da.



ANTZERKIA

Tomaxen
Abenturak
pailazoak
Igorren

Erredakzioa

Tomaxen Abenturak pailazoak Igorreko Lasarte Aretoan izango dira zemendiaren 5ean, 17:00etan, *Hiru ipuin* izeneko ikuskizuna eskeintzeko. Hau antzezlan familiarra da 4 urtetik gorako umeentzako aproposa eta "Txanogorritxo", "Hiru txarritxoak" eta "Hamelingo txirularia"ren kontakizunak batzean ditu.

Muxugorrik, Tomaxen lagunak, Tomax liburutegira joateko konbenziduko dau, han, ipuinakaz antzerkia sortzeako. Ez dakienez irakurten, ume bat aukeratuko dabe honek euren gustuko ipuinak kontetako eta holan, "Txanogorritxo", "Hiru txarritxoak" eta "Hamelingo txirularia" euren erara antzertuko dabez. Barre egin, ondo pasau, kantau, jantzan egin eta majia egingo dabe Tomaxek, Muxugorrik eta bertaraten diranak.



EGUTEGIA

Zeberioko
Udalak 2017ko
egutegia egingo
dau herriko
argazkiakaz

Erredakzioa

Zeberioko Udalak 2017ko egutegia egingo dau herriko argazkiakaz eta horretarako herritarri argazkiak bialtzeko eskatzen deutse.

2017ko egutegia herritarrik bialdutako argazkirik esanguratsuenak egingo da. Udalak urte amaieran herriko etxe guztietan bananduko dau.

Argazkiak, digitalak edo digitalizatuak izan behar dira eta montxi.zeberio@bizkaia.org helbide elektronikora bialdu behar dira zemendiaren 30a baino lehen. Udaletxean bertan be itxi daitezke papelezko formatuan eta Udalak, argazkiak digitalizau ostean, itzuliko deutsez jabeai.

KANTUA ETA JANTZEA

Kantu eta jantza tradizionalen aldeko ekimen bi Arratian



Areatzako Euskal Jaian plaza bete jantzan.

Erredakzioa

Arratiako hainbat jantzazale batuta, Arratia Dantzan izeneko ekimena abiatu dabe. Honen helburua da erromeriak egitea Arratiako herri guztietan, eta zaleak batzea jantzan egin eta ondo pasetako. Ekimen horretara Usansolo be batu da. Lehenengo Topaketea Areatzako Euskal Jaian egin eben eta hurrengo hitzordua zemendiaren 19an daukie Usansolon.

Kantuzaleak be, Arratia Kantuz izeneko egitasmoa martxan ipinten dabiz, kantetako ohiturea berreskuratu, euskerearen erabilera bultzatu eta ondo pasetako helburuagaz.

Arratia Dantzan

Areatza, Igorre eta Zeanuriko erromeria zaleen ekimenez ipini da martxan proiektu hau eta zabalzen doa. Asmoa hilean behin, Arratiako herriren baten erromeria

bat egitea da eta bertara Arratiako herri guztietako jantzazaleak joatea jantzan egiteko. Egutegia osotuen dabiz, herri bakotxeko eta inguruko herrietako ekintzak kontuan hartuta.

Arratia Kantuz

Arratia Kantuz egitasmoa martxan ipinteko, Arratiako kantuzaleak batzarra egin eben Igorren urri bigarrenaren 27an. Bertan, Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima,

Igorre, Lemoa eta Zeanuriko 16 lagun bildu ziran. "Bertaratukoak gogotsu agertu ziran arratiarrak abestuten alkartuteko ideagaz, eta zemendian zehar bakotxak bere herrian egitasmoari buruzko informazioa zabaltzeko geratu gara. Arratia Kantuz-en ahalik eta herritar gehienik parte hartzea gura dogu" dino Sara Gutierrez Arratia Kantuz egitasmokoak.

Hilean behin, herri baten, topaketea antolatu gura dabe eta 2017ko egutegia egiten dabiz.

Arratia Kantuz-en lehenengo topaketea, Areatzan izango da abenduaren 16an, arrastiko 20:00etan plazatik hasita. Bertan, kantu liburua bananduko dabe.

Kantuk era ez formalean

Egitasmoaren helburu nagusia abestutea eta ondo pasetea da. Baina beste helburu batzuk be baditu: euskaldunen kantetako ohiturea berreskuratzea eta Arratiako herrietako jentek alkartuteko eta zaletasun hau konpartiduteko aukerea izatea.

Izan be, Arratian kanturako zaletasun handia egon arren, kaleetan eta modu informalean kantetako ohiturarik ez dago. Hainbat koru egon arren, Santa Agedakoa, Luis Iruarrizaga, Lemoako Korala eta Zeanurikoa beste batzuen artean, kantu ez formalean; hau da, modu herrikoian, kantu biretan eta abar, jentea ez dala asko animetan uste dabe kantuzaleak. Eta hori aldatzeko ipini dabe martxan ekimen hau.

BERTSO AFARIA

Aitor Sarriegi eta Jone Uria bertsolariak sanmartinetako Arantzazuko bertso afarian

Erredakzioa

Arantzazuko EH Bilduk sanmartinetako bertso afaria antolatu dau, aurten seigarrenez, zemendiaren 11rako, Arantzazuko Montero jatetxean. Aitor Sarriegi eta Jone Uria izango dira bertsolariak. Ekitaldia 21:00etan hasiko da.

Sarrerak 18 eurotan egongo dira eskuragarri Arantzazuko Herriko Tabernan eta Montero jatetxean eta Igorreko Rugby tabernan, Gau Loran eta Axular Herriko Tabernan.

Bertsolariak

Aitor Sarriegi gipuzkoarrak eta Jone Uria bizkaitarrak botako dabez bertsok aurten sanmartinetako bertso afarian. Biak hartu dabe parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.

Aitor Sarriegi (Beasain, 1976) Bertsolari Txapelketa Nagusiko azken bi finaletan, 2009an eta 2013an, egon da. Jone Uria (Algorta, 1990), 2010ean, 2012an eta 2014an Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera heldu zan.

DUNBA

Ikasleok eskolako ekintzak antolatutuen doguz

Dimako eskolako 6. mailako ikasleak

Aurten Dimako eskolako irakasleak berbea emon deuskue ikasleoi eskolako ekintzak antolatuteko, ekintza horreek guk antolatzea suposatzen dau. Zelango suertea, ezta?

Baina ez gaitez erratu, antolatzen dogun guztia helburu zehatz batzuk lortzearren prestatu behar dogu eta eskola komunitate guztia inplikatu behar dogu bertan (ikasleak, irakasleak, gurasoak...). Ui, ez dakit ba lortuko dogun!

Holan izanda, 6. mailakoai, mobikortasun astea antolatzea egokitu jakun. Mobikortasun astea urri lehenengoaren 19tik 23ra ospatu genduan, eta helburua, Dimako ume eta nagusiak eskolara oinez etortea bultzatzea zan. Horretarako, aste batzuk lehenago,

behar zan guztiaz (materiala eta abar) pentsetan hasi ginan. Dana ordutegian sartu zan eta mobikortasun asteagaz hasteko prest genozan.

Astelehenean, LH4koai inkestea emoten joan ginan. Inkesta hori eskola guztiari pasetakoa zan eta emoitzak guri bueltetako. Inkestearen helburua ahalik eta persona gehien oinez edo bizikletaz etortea zan. Egun horretan pin-ak be banandu ziran.

Martitzenean, 09:00etan, eskolako aterpera joan ginan gurasoakaz berba egitera, ea zenbat egongo ziran prest mobikortasun

astean guri lagunduteko.

Eguaztenean, 5. mailakoai ipuina kontetan joan ziran HH-ko (Haur Hezkuntzako) 4-5 urtekoai.

Eguenean batzarra egin zan bildutako guraso guztiakaz, barikuko ibilbidean non kokatu behar ziran zehazteko. Gorpilak zulatzen diranean zelan konpondu behar diran be egun horretan erakutsi genduan tailer baten. Bigarren ziklokoak oso gustura ibili ziran gugaz.

Barikuan bizikleta eguna ospatu zan. Ibilbidea, ginkanea eta hamaiketako egin genduan. Dana primeran atera zan eta danok oso



ondo pasau genduan.

Hurrengo ekintza urri bigarrenaren 3an izan zan, Habitat eguna. 5. mailakoai antolatu eben eta egun horretan espezie inbaditzaileen bideoak ikusi genduan eta txikiak azaldu geuntsen. Gela guztietan aurten Agenda 21 proiektuagaz zerikusia daukan hitzarmen gainean berba egin genduan eta hamaiketako moduan gurasoen laguntzeagaz prestatutako fruta mordoak jan genduan. Eguna amaitzeko, arrastian ur jolasak egin genduan eta primeran pasau genduan.

Gaur barriz, urri bigarrenak 26, gaztain eguna ospatuko dogu eskolan eta ekintza antolatzeko 4. mailakoien txandea da. Ea zer prestatu deuskuen! Hurrengo baten emongo deusuegu horren barri.



AGENDEA

ZEMENDIAK 2
ARRATIA

Drogen erabilerearen arrisku murrizketa trebakuntza lantegian izena emoteko epea zabalik. Izena Arratiako Udalen Mankomunidadera deituta edo prebentzioa.ariatia@bizkaia.org helbidean eron daiteke. Tailerra zehazkiaren 19an izango da.

Zehazkiaren 9ra arte, Beldur Barik Lehiaketan ikusentzunezkoak aurkezteko epea zabalik.

IGORRE

17:00etan, Sorospen basikoak. Aitziber Olabarieta Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina eta BBBko monitorea. Jubiladuen Etxean.

ZEBERIO

Hilaren 30era arte, 2017ko egutegia egiteko argazkiak bialtzeko epea zabalik. monbi.zeberio@bizkaia.org helbide elektronikora bialdu edo udaletxean be itxi daitezke papelezko formatuan.

ZEMENDIAK 3

IGORRE

17:00etan, BBB eta disfnibiladorearen erabilera. Aitziber Olabarieta Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina eta BBBko monitorea. Kultur Etxean.

18:00etan, Bizi (Igorre adinekoak azkeitsuago izateko programea) proiektuaren 2. saioa. Kultur Etxean.

20:00etan zine kluba. *Timbuktu*. Lasarte Aretoan.

ZANURI

18:00etan, Herrigintza feministotik ikastaroa hasiko da. Zehazkiaren egunen Zeanuriko Udaletxean. Pili Alvarez Molesen eskutik.

ZEMENDIAK 4

ARRATIA

Beldur Barik-en nesken Autodefensa taileraren izena emoteko azken eguna. berdintasuna2.ariatia@bizkaia.org helbidean edo AUMera deituta.

ARTEA

19:00etan, Rosa Martinezen txotxongilo ikuskizuna *Hala bazan*. Ludotekan.

DIMA

19:00etan, Alkarregaz Gure Esku Dagoren

ekitaldia frontoian. Juan Jose Ibarretxe, Jaime Lopez, Iñaki Antiguedad, Gontzal Mendibil, Rafa Rueda, erromeria eta Gaztetxean alkarregaz egoteko aukera.

23:30ean, The Bilus Moon taldearen kontzertua Ugatxa tabernan.

ZEMENDIAK 5

AREATZA

11:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara, 12 eta 26 urte bitarteko andrentzako Autodefensa tailerra. Udaletxean.

20:00etan, Golden Wood taldearen kontzertua, The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

21:30ean, Four Friends taldearen kontzertua Artea

tabernan.

DIMA

10:30ean, aurrekontuetarako auzo batzarra Artaun txokoa. Batzarrera deituko auzoak: Biteriño, Artaun eta Ugariotz.

IGORRE

Nordic Walking jubiladuentzat.

17:00etan, *Hiru ipuin* Tomaxen abenturak umeentzako ikuskizuna. Lasarte Aretoan.

20:00etan, Zazkel taldea Axular Herriko Tabernan "Elkadura subirautearen alde zator dantzara!". Axular Kultur Elkarteak eta Batu Arratiako Kooperatiba Agroekologikoak antolatuta.

22:00etan zinea, *Bridget Jones' Baby* Lasarte Aretoan.

Ahizta bi, abusuak eta tratu txar
psikologikoak *Ahizpak* antzezlanen

Zehazkiaren 12an, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan, Moon Produzioak-ek *Ahizpak* antzezlanen taularatuko dau gaztelaniaz. Fer Montoyaren zuzendaritzapean, Maite Agirrek, Justi Larrinagak eta Olatz Gorrotxategik ahizta bi eta erizain baten papalak jokatu ditue Robert Aldrich-ek zuzendutako *Qué fue de Baby Jane* pelikulearen itzala daukan misteriozko istorioa kontetako.

Antzezlan honetan, Marta etxean zarratuta bizi da, vodka edaten eta *Qué fue de Baby Jane* pelikulea etenbarik ikusten. Musikal bat egiteko asmoa jabilko buruan. Pelikulan legez, bere ardurapean ahizta elbarri bat dauka, eta bien arteko hartu-emonen sano konplikaua da. Astean behin Olivia erizaina joakie eta ahizten arteko hartu-emonen zelan doan hondatzen ikusten dau.

ZEMENDIAK 6

AREATZA

Corbeia Parke Naturalak antolatuta, Arratiako eraikin historikoak ezetuteko ibilbide gidatua Peru Perez de Anuziaren eskutik.

DIMA

10:30ean, aurrekontuetarako auzo batzarra Bikarregi ermitan. Batzarrera deituko auzoak: Amantegi, Bikarregi behekoa, Bikarregi goikoa.

IGORRE

17:00etan, zinea *Printze Txikia*; 19:30ean, *Bridget Jones' Baby* Lasarte Aretoan.

ZEMENDIAK 9

ARANTZAZU

18:00etan, Maitena Monroyren berbaldia "Bizirik urten daben andrak. Indarkeria matxisteari aurre egiten". Erabilera anitzeko aretoan.

LEMOA

18:00etan, Kultur proiektuaren bigarren lan saioa. Elizondoko Kulturgunean

ZEMENDIAK 10

AREATZA

19:00etan, Memoriaren Egunean gazteak eragindako heriotzak eta jasandako sufrimentua aitortzeko konzentrazioa udaletxe aurrean.

IGORRE

Hilaren 13ra arte, jubiladuak txangoa Madrilera.

ZEMENDIAK 11

ARANTZAZU

21:00etan, sanmartinetako bertso afaria Montero tabernan. Bertsolariak: Aitor Sarriegi eta Jone Uri.

ARTEA

18:00etan, joko korala musika eskolan.

DIMA

18:00etan, aurrekontuetarako auzo batzarra Lamindao ermitan. Batzarrera deituko auzoak: Kaltzada, Aroztegieta, Lamindao, Iturriotz, Iraugi eta Ilunbe.

LEMOA

19:30ean Hauxe da gure kantua jaialdia Gaztetxean. 18:00etan, Lip Dub tailerra 12 eta 26 urte bitarteko gazteentzat. Jubiladuen gaineko batzar aretoan.

ZEMENDIAK 12

ARTEA

21:30ean, Moonshine Wagon taldearen kontzertua Ekomusean.

BEDIA

San Martin jaiki. 09:00etan mendi markea Bediako plazatik urtenda; 10:30ean, txiki-burruntzia San Martin ermitaren inguruan; 12:00etan mezea San Martin ermitan; 12:45ean Bola joko eta zozketea; 14:30ean babajana frontoian.

DIMA

10:30ean, aurrekontuetarako auzo batzarra Ziarusta plazan. Batzarrera deituko auzoak: Artubi, Santuru, Bengoetxe, Zelaieta, Ziarusta, Agarre, Ziorrostabiñi...

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak goizeko urtekerea Arratiatik. Perrebiko bilketea.

ZANURI

09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, doliaren gaineko ikastaroa Kepa Kaminaren eskutik Zeanuriko eskolan. Guraso Eskolak antolatuta.

ZEMENDIAK 13

DIMA

10:30ean, aurrekontuetarako auzo batzarra Indusi txokoa. Batzarrera deituko auzoak: Ubo, Bentaburi, Bemaola, Belaba, Olalde, Zamakola, Gibeltar, Landaxola, Goñola, Kortabarria, Urzabaleta, Oladu, Elgabide, Makaztui eta Lapurriketa.

IGORRE

17:00etan, zinea *Trolls*; 19:30ean, *La chica del tren* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etatik 15:00etara, XVII. Nekazaritzako Elikagaien Azokea, Elizondoko; 13:00etan, Arratiako Musika Eskolako trikilariak eta Lemoako Korala kantakalejiran. Atxetako plaza eta azokako hainbat txokotan.

10:00etatik 15:00etara, Erakusketa mikologikoa Atxetako plazan. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta.

ZANURI

09:30etik 14:00etara, doliaren gaineko ikastaroa Kepa Kaminaren eskutik Zeanuriko eskolan.

ZEBERIO

Austari Mendi Taldearen urtekerea. Urrekoatxilla eta babajana.

20:00etan, zinea *Un toque de canela*. Eskola Zaharrean.

ZEMENDIAK 14

LEMOA

Hilaren 20ra arte Kirol Astea.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

MAKINARIA SALGAI

Bedarra zabalduko eta batzeako makinak saltzean dodaz. Interesauak deitu telefono honetara 628 041 526.

KIROL MAKINEA SALGAI

BH Fitness Quick Easy Eliptic kirol makina salgai. Telefonoa: 615 783 915.

KIROL MAKINEA SALGAI

Bizikleta estatikoa salgai. BH Fitness, Sprint Bike Three. Telefonoa: 649 979 115.

SALGAI

Hamar ardi eta aharitua (latxa errazakoak). Gura izan ezker, Undurraga auzunean, hektarea bateko larrea eta txabolea be itxiko jako erosleari, garbitzearen truke. Telefonoa: 653 745 838 (Gotzon).

DANERIK

BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesauak 649 979 115 telefonora deitu.

ZERBITZARIAK BEHAR DIRA

Areteko taberna batek zerbitzari bat behar dau jantokirako, eta beste bat tabernarako. Interesdunak 688 616 816 telefonora deitu.

LAN BILA

Etxe garbiketarako eta plantxea egiten dodaz. Kotxeduna. Interesatuak deitu 658 591 307 telefonora.

IGORREN BERBALAGUN BILA

Astean ordubete euskeraz berba egiteko aukerea! Ikasten dagozanak lagundu gura badozuz edo euskeraz erreztasuna lortu. Deitu 688 802 373 telefonora edo mezua bialdu euskera@igorre.net helbidera.


Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Tomaxen Abenturak-en *Hiru ipuin* antzezlanerako.

Ander Larrakoetxea (Zeanuri)
Itsaso Bengoetxea (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Ahizpak* antzezlanerako.

Rosana Pedrosa (Areatza)
Aritz Zubiate (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 14


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Atsegin. Boroa. 2.- Bukaera. Ekintza baten norainokoa adierazoteko interjekzioa. 3.- Bibliako pertsonajea, Noeren semea. Birritan, hizkera hotsaren onomatopeia. 4.- Akusadu. 5.- Sufrea. Toki. 6.- Urten. Bokala. 7.- Birritan, hortz-karraskaren onomatopeia. Narria, narra. 8.- Sanskritoko silaba sagradua. Polit. 9.- Letra bat. Ordez.

GOITIK BEHERA

1.- Traza, itxura. Barna. 2.- Ameseta. Birritan, Afrikako tanbor antzekoa izentetako onomatopeia. 3.- Zoritxarrez. Konsonantea. 4.- Harridura adierazoten dau. Pinu. Erbioa. 5.- Letra bat. Eskastu. 6.- Bildu. Alfabetatze eta Euskalduntzerako Koordinakundea. 7.- Kasket. Kiskaldu.



Topau liburu bateri lotutako zazpi atal edo elementu.

S	I	D	E	K	I	R	A	B	O
E	L	E	B	E	R	R	I	A	G
M	U	N	I	T	X	I	K	O	E
I	S	T	O	R	E	Z	O	F	U
K	T	A	R	A	M	E	L	E	K
O	R	I	P	U	I	N	A	Z	E
A	A	R	R	O	T	B	K	I	Z
P	Z	I	D	A	R	U	A	G	A
E	I	L	E	G	Z	R	U	I	H
P	N	E	R	A	L	U	T	X	O
I	O	S	L	O	P	A	I	T	A
X	A	A	O	B	E	R	D	A	K
I	Z	U	N	D	A	L	E	K	I
A	E	D	I	B	I	K	R	U	A
S	O	R	G	A	B	I	K	E	R

AKI MI KO

Zorrozki lo



umean moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnua. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten
dogu. Bizarna egin eta bukunduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
KOSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIB ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnua: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ZUZENBIDE
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRATIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unozulu@euskalnet.net

JUANTI MENIKA

"Arratian galduta egoazan erromeriak, biztu gura doguz barrero"

Arantzazuko Juanti Menika 14 urtegez hasi zan jantzan.

Handik gitxira itxi, eta 19 urtegez ekin eutsan barrero.

Sano ezaguna da Arratiako jantza munduan Menika.

Orain dala 42 urte sortutako Arantzarte Dantza Taldeko sortzaileetako bat da eta bertan jarraituten dau, taldeko presidente eta jantza zuzendari lanetan.

Jantzari beterano honek, erromeriak berbiztea helburu daukan Arratia Dantzan proiektuan be parte hartzean dau, Arratiako beste jantzazale askogaz batera.

Erredakzioa

Juanti Menika. Juanti izena nondik jatortzu?

Nire izena Juan Antonio da eta Usansoloko Labeaga auzunean ospitalea dagoan baserri batekoa naz. Ospitaleko sarrerea egiteko baserria bota eben 13 urte neuzazanean. Orduan han igeltseroak egoazan obrak egiten eta bat hasi zan esaten: zuri deitu behar deusut... Juanti. Eta orduarik hona, mundu guztiak Juanti deitzean deusta. Arratian Juan Antonio esaten badozu, inok ez dau jakingo neu nazana.

Non eta zergaitik hasi ziran jantzan?

Hamalau urtegez Galdakaoko Andra Mari jantza taldean hasi nintzan. Gero itxi egin neban. Eta gero, ostera be, hasi nintzan jantzan hermeretzi urtegez, eta harrezkerotik ez naz gelditu.

Orduan jantza asko egiten zan baina oso talde gitxi egoazan inguruetan eta Bizkaian be gehiegi be ez. Gipuzkoara asko joaten ginan. Jantza asko egiten genduan, zapatu-domeka baten igoal hiru bider. Orain 50 urte jentea oso gitxi mobiduten zan, eta gu ibiltzen ginan herrikeri herri. Atzerrira be joaten ginan: Ingalaterrara, Belgikara... 1970ean Olaeta balletagaz Estatu Batuetara joan nintzan eta hiru hilabete egon nintzan han.

Olaeta balleta Bilboko Ertzilla kaleko akademia bat zan. Neskak joaten ziran balleta egiten, baina sano mutil gitxi. Eta Olaetakoak ibiltzen ziran herrikeri jantza taldeetan mutil bila. Komeniduten jakien baten bat ikusitakoan, hile batzuetan ensaiatu eta Estatu Batuetan egiten ebezan jirak. Euskal jantzetan oinarritutako balleta zan. Guk Euskal jantzak ballet estilo apur bat emonda egiten genduzan.

1974ko apirlean Arantzazura ezkondu nintzan.

Igorreko Arantzarte jantza taldea Arantzazun sortu zan?

Bai, Arantzazun. Juan Jose sakramentinoa hemeko eta Arteako parrokoa zan. Arantzazun Gabonetako Auto Sakramental bat egin eben, euskeraz idatzita dagoan lehenengo antzezlan. Juan Josek baekian jantzarria nintzala eta esan eustan ea nik obrarako jantza pausu batzuk egiteko prest nengoan.

Hortik lasterrera, Arantzarteko lehenengo batzarra egin zan eta hasi ginan ensaiok egiten. Arteako ikastetxe baten hasi ginan ensaietan. Francoren denporea zan, Franco 1975ean hil zan eta hori 1974an izan zan eta hasi eta hile batzuk beranduago fraileak esan euskuen euskal jantzak egitearren subentzinoak galtzeako beldurra eukela. Eta orduan, Areatzako sakramentinoetan hasi ginan ensaietan, baina han be lekua ez zan ona. Gero Zeanuriko Zulaibar eskola profesionalera joan ginan eta hango sarreran egiten genduan. Ha be ez zan lekuri egokiena. Gero Zeanuriko eskolako lokal baten, Dimako eskolapean be bai, eta azkenean, hasi eta lauzpabost urtetara, Igorreko Institutuko gimnasia joan ginan. Eta hor emon genduzan urte piloa, Igorreko Kultur Etxera pasau arte.

Erromeriak errekuuperetako helburuagaz, Arratia Dantzan proiektua abiatu dozue Arratiako hainbat herritako jantzazaleok alkarlanean.

Bai, martxan da. Proiektuko lehenengo erromeria, Areatzako Euskal Jaian egin genduan. Areatzako kuadrila bat dago holango gauzetan parte hartzean dauana. Arratian edo beste nonbait erromeria badago, joan eta jantzan egiten dabe. Aurten Igorreko jaietan, Arantzartekoak aktiazinoan egin beharrean erromeria bat egitea pentsau genduan eta whatsapp bialdu geuntsen Areatzakoai. Erromeria egin genduan eta



etorri egin ziran.

Arantzazuko jaietan be etorri ziran eta, Areatzako jaietan joateko esan euskuen. Joan ginan eta han hasi ginan berbaz, hori serioago egin behar genduala esanez.

Hurrengoko egunean, non etorri jakun ba whatsapp, Arrikibar Zeanuriko jantza taldekoa, esanez gauza bera egitea pentsau ebela Arratia mailan. Eureka egon ginan berbaz eta batzarra egin genduan. Usansolo be sartu da proiektuan. Lehenengo lau erromeriak zehaztu doguz. Hurrengo zemendiaren 19an izango da Usansolon.

Eta beste herrietakoak?

Igorren egiteko fetxarik ez dago oraindino, ezta Arantzazun be. Zeanurin apirlean egiten dabe urtero holango zeozer eta fetxa hori aprobetxauko dogu. Diman, maitezean, Dantzari Txiki eguna egiten dabe. Ikasturte honetan, erromeria be egongo da egun horretan.

Fetxak ipinteko batzuetan, kanpotik zer datorren begiratu behar da. Ikasturte honetan Korrika datorrena lez, akaso ondo etorriko jaku Korrikaren inguruko ekitaldietan sartzea erromeriaren bat, Arratia guztia etorri daiten jantzan egiten. Edo akaso hobeto da beste fetxa batzuetan antolatutea... Hori

ondino pentsau barik dago.

Erromeriako jantzak ikasteko Arantzartek ikastaro bat dauka. Ikastaro horretan 35etik 40ra lagun egoten dira. Eguztenetan izaten da 19:30etik aurrera.

Zenbat jantzazale batzean zarrre?

Areatzako Euskal jaian egon ginan jantza taldeko jente piloa, ikastaroetakoak, Zeanuriko batzuk... Jente piloa be etorri zan Bilbo ingururik. Eta gero Areatzakoak...

Atzenean ez dakiguna da noraino helduko garan. Baina hasi egin gara erromerietan jantzan egiteko batzean eta hemendik urte batzuetara akaso, galduta egozan erromeriak egingo dira barrero. Guk hori biztu gura dogu, asmoa zabaldu daitela eta gero eta jente gehiegok parte hartu daiala.

Zeintzuk dira Arantzarte jantza taldearen proiektuak?

Gabonetan ekitaldi bat egingo dogu, Austriako jantza jaialdi baten be parte hartu gura dogu... baina ez dakigu ahal izango dogun. Jaialdia garagaril amaieran edo abuztuan izaten da, eta eskari asko hartuten dabez.

Urtean zehar urtetan dauana be, egingo dogu. Urri bigarrenaren 22an, barbarako, Beasainen egon ginan jantzan.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKUA ETA SALMENTA